

ORDOÑANA / ERDOÑANA

– ARABA / ÁLAVA –

Erdoñana Gasteizetik 29 km-ra dago. Hiriburuan N-104 errepidea hartu behar da, Donostiarantz. N-1 errepidetik joanda, Aguraingo industriagunera doan 375. irteera hartu eta, Agurain zeharkatu ondoren, A-3016 errepidea hartu behar da Zalduondorantz. Kilometro bat baino apur bat gehiago egin ondoren, herrira iritsiko gara. Erdoñana Donemiliagako Udalarri dagokio eta Udal horren burua da, Aguraingo kuadrillaren barruan.

Herri honetatik Donejakue Bidea bidea igarotzen da –San Adrianetik jaitsi eta Zalduondo igaro ondoren, herri horren eta Agurainen bitartean–. 1025ean *Erdongana* izenez aipatuta ageri da, Donemiliaga Kukullari golde-burdina bat ordainduz, Alfoz de Barrandiz izenekoaren barruan. Beste herri batzuekin batera, Aguraini lotuta geratu zen Alfontso XI.ak aginduta, 1332. urtean. Herria Herdoñana leinuaren sorlekua da, Arabako Lautadaren ekialdean tradizioz handiena duen abizenetako bat.

También conocida como Erdoñana, Ordoñana se encuentra situada a casi 29 km de Vitoria, desde donde se accede por la N-104 en dirección a San Sebastián. Siguiendo por la N-1, la salida 375 hacia la zona industrial de Salvatierra conduce también hasta el centro de la villa, que hay que atravesar, para seguidamente tomar la A-3016 en dirección a Zalduondo. Tras poco más de un kilómetro se llega al pueblo. Ordoñana pertenece al ayuntamiento de San Millán, del que es cabeza, dentro de la Cuadrilla de Salvatierra.

Esta localidad de paso del Camino de Santiago –en su bajada desde el paso de San Adrián tras atravesar Zalduondo y nexo de unión entre éste y Salvatierra– aparece citada en 1025 con el nombre de *Erdongana*, pagando a San Millán de la Cogolla una reja dentro del Alfoz de Barrandiz. Fue incorporada junto con otros pueblos a Salvatierra por orden de Alfonso XI en 1332. El pueblo es cuna del linaje de los Herdoñana, uno de los apellidos de mayor tradición en la Llanada alavesa oriental.

Jasokundeko Andre Maria eliza Iglesia de Nuestra Señora de la Asunción

ERDOÑANAKO ELIZA muino baten goiko aldean dago, eta horren inguruan etxeak antolatzen dira. Elizak portada erromanikoa kontserbatzen du, eta, inguruko beste batzuek bezala, zisterarren eragin handia du. Bost arkibolta zorrotz ditu. Lehenengoa, hirugarrena eta bosgarrena baketoidunak dira, eta bigarrenak eta laugarrenak moldura ahurra dute. Guztien alboan, kanpoaldetik, xake itxurako zerrenda zabala dago, eta barrualdetik, lodiera txikiagoko xake itxurako zerrenda. Bigarren arkiboltaren erpinean bi maskara daude, buruaren goiko aldeetik lotuta, arkuaren formari jarraituz; ezkerrekoaren lepotik hosto lau bat ateratzen da. Laugarren arkiboltan ere bi maskara daude, kasu honetan bat alde bakoitzean, arkuaren erdialdean gutxi gorabehera, eta eskuinekoan kokospeko uhala izan daitekeena ageri da. Kanpoko arkiboltan, berriro ere, beste bi maskara daude, aurrekoak baino gutxiago markatuta eta erpinetik hurbilago.

ENCLAVADA EN LO ALTO de la colina alrededor de la cual se extiende el pueblo, la iglesia de Ordoñana conserva su portada románica, muy influenciada, como otras de la zona, por los nuevos aires del Císter. Consta de cinco arquivoltas apuntadas. La primera, tercera y quinta baquetonadas, mientras que la segunda y la cuarta presentan moldura cóncava. Todas flanqueadas al exterior por una ancha banda de ajedrezado, y al interior por otra abilletada de bastante menos grosor. En el vértice de la segunda arquivolta aparecen dos carátulas unidas por la parte superior de la cabeza, siguiendo la forma del arco; del cuello de la de la izquierda emerge una hoja plana. En la cuarta arquivolta también hay dos carátulas, en este caso una a cada lado hacia la mitad del arco, y la de la derecha presenta lo que podría ser un barbuquejo. En la arquivolta exterior de nuevo hay otras dos carátulas, menos marcadas que las anteriores y más cercanas al vértice.

Arkuak inposta molduratu oinarritzen dira. Inposta flora naturalista duten kapitelen gainean jarrita dago, baina elizaren barrualderantz begiratzen dutenek badirudi maskarak irudikatzen dituztela. Janbak baketoidunak dira angeluetan, eta harroinek gutxi markatutako oxkarratua dute.

Gainerako eraikinean, XVI. mendean koka daiteke, eliza erromanikoaren osagaiak berriz aprobetxatu ziren, zehatz esanda, hegoaldeko horman, elizpearen gainean, leihoaren ondoan, baketoia eta loredun kapitela duen piezan. Hurrengo horma-atalean, idi-begiaren ezkerrean, arku zati bat ikusten da, eta goian, erlaitzaren azpian, beste harlan-

Los arcos descansan sobre una imposta moldurada que asienta sobre capiteles incisos mostrando flora naturalista, aunque los que apuntan hacia el interior de la iglesia parecen representar máscaras. Las jambas aparecen baquetonadas en los ángulos, y las basas muestran un festoneado poco pronunciado.

En el resto de la construcción, fechable en el siglo XVI, se reaprovecharon elementos de la iglesia románica. Esto se puede apreciar, concretamente, en el muro sur, sobre el pórtico, junto a la ventana, en una pieza con baquetón y capitel floral. En el paño siguiente, a la izquierda del ócu-

Portada / Portada





Hegoaldeko horman berriz erabilitako aztarna erromanikoak / Restos románicos reutilizados en el muro sur

du batzuk, arku zatiekin eta loredun kapitelak dituzten baketoiekin. Jatorri erromanikoko antzeko piezak ageri dira baoen alboetan, leihate altuetan.

Testua eta argazkiak: REA

lo, se aprecia un trozo de arco, y arriba, justo debajo de la cornisa, otros sillares con trozos de arco y baquetones con capiteles florales. Similares piezas de origen románico flanquean los vanos en los ventanales altos.

Texto y fotos: REA

Bibliografía / Bibliografía

LÓPEZ DE GUERENU, G., 1962, pp. 47-48; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1988a, pp. 482-486; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1988, p. 27; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1982, p. 646, fig. 401; PORTILLA VITORIA, M. J., 1991, pp. 51-52.